

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Hasierako onespena ematea 2022ko aurrekontu orokorrari

Udalbatzak, 2021eko abenduaren 9ko ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea erakunde honen 2022ko aurrekontu orokorrari eta lanpostu zerrendari.

Indarrean dagoen araudian xedatutakoarekin bat etorriz, espediente hori jendaurrean jartzen da udal idazkaritzan 15 egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko udalbatzari.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Guardia, 2021eko abenduaren 21a

Alkate-lehendakaria

LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO